



Uda honetan irekiko da El Pobalerainoko ibai-pasealekua

/5. orria

Nekazaritza ekologikoko talde monitorizatua

/2. orria

2018rako udal-aurrekontu berriak

/3. orria

Bera bakarrik garbitzen den komuna El Cruceron

/4. orria

Muskizko Eguneko Zentroa, 25 urte baino gehiago

/6. orria

Editoriala

Aurrekontu berria, gastu sozial, enplegu eta prestakuntza gehiagorekin

2018. urterako aurrekontua onetsi du Muskizko Udalak. Udaleko talde gehien babesarekin, aurten gauzatuko diren ekintza guztiak biltzen ditu aurrekontu berriak. Aurten, gastu sozialera, enplegura eta prestakuntzara bideratutako diru-sailari eustea izan dugu helburu nagusi, gure herriak hazkunderako bidean aurrera jarrai dezan, baina haren izaera soziala ahaztu gabe. Bestalde, tasen eta zergen igoerak KPIren igoerara mugatu nahi izan ditugu, eta baztertzeko moduko ohiko gastuak gutxitu.

Guztira 12,8 milioi eurotik gorakoa den azken aurrekontua izanda, Muskizko Udalak apustua egin du kolektiborik zaurgarrienak babesteko sistema sendotzeko: adinekoak eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak. Horrez gain, familien ekonomietako zergapresioa ere mugatu nahi izan dugu, tasek eta zergek KPIrekiko duten igoerara.

Gainera, joan den urtean Parte-hartzean oinarritutako Aurrekontuekin hasitako esperientzian sakonduz, handitu egin dugu herritarrek proposatutako hobekuntzak egitera bideratutako zenbatekoa, eta orain 204.000 eurokoa da. Funtsean, argiztapena, bide-segurtasuna, hiri-altzariak eta abar hobetzeko erabiliko da. Beste proposamen batzuk hurrengo ekitaldietarako baloratuko dira. Bestetik, 2018ko aurrekontuaren barruan inbertsio batzuk jaso dira, soberakinekin ordaintzeko aurreikusita, besteak beste, ur ertzeko pasealekua, igerilekuak, tenisa eta Rigadako Kultur Etxea.

Era berean, lanean ari gara azoka berri bat abian jartzeko; maiatzean egingo da, udaberriari eta gastronomiari lotuta. Beste ekintza bat, gure udalerrira sustatzeko eta bultzatzeko.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea

Nekazaritza ekologikoko talde monitorizatu baten sorrera

Muskizko Udaleko Ingurumen Sailak nekazaritza ekologikoko talde monitorizatu bat sortu du, horretan interesa dutenei aholkularitza emateko eta teknikak doan eskaintzeko. Taldean parte hartzeko eskakizunak honako hauek dira: Muskizen baratze bat izatea, haren zati txiki bat produktuak landatzeko erabiltzea Babesten izeneko metodoaren bidez, taldeak hiru hilean behin egingo dituen bileretara joatea eta produktuetakoz batzuk Ehiza, Arrantza eta Ingurumeneko Azokan erakustea.

Talde monitorizatuan parte hartzen duten lagunek zenbait onura ere jasoko dituzte, besteak beste, aholkularitza pertsonali-

zatu, nekazaritza ekologikoko aldizkari bateko harpidetza, konpostagailuak doan erabiltzeko aukera, tokiko produktuen haziak, eta prozesu osoan Areitz Soroarekin koordinatuta aritzea.



Langabeen kopurua jaitsi egin zen 2017an



Lanik gabeko lagunen kopurua murriztu egin da azken urtean Muskizen, hain zuzen, 64 langabe gutxiago dago gaur egun. Kopuru on horiei esker, langabezia-tasa %12,8raino jaitsi da. Izan ere, Muskizko Udalak hainbat ekintza egin ditu joan den urtean, herri meatzari honetako langabezia-tasa jaisteko asmoz, Forlan Enplegu Prestakuntzarako Udal Zentroaren bidez.

2017an era askotako ekintzak egin dira. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen plana izan da denen artean esangura-

tsuena. Guztira, 13 lagun kontratatu dira, 160.000 euroko zenbateko orokorra erabilita. Kopuru horretatik, 68.000 euro Udalak jarri ditu eta gainerakoa Lanbidek. Gainerako jardueri dago kienez, hau da laburpena: udalerrian lanik gabe dauden lagunak kontratatuz enplegua sustatzeko enpresei eta dendei laguntza ekonomikoa emateko programa, 14 langile kontratatuta eta 49.824 euroko gehienezko zenbatekoa erabilita; eta, bestetik, autoenpleguaren bidez enpresak sortzeko programa, 24.000 euroko zenbatekoarekin. Bestalde, dena txikiak bultzatzeko jarduerak egin dira, Denda Txartelaren kanpainaren bidez; ikastaro batzuk abian jarri dira, eta DEMAren bidez enplegu-bultzatzaile bat sortu da.

Azkenik, nabarmendu behar dugu langabeen prestakuntza sustatu dela, 23 urtetik gorakoek LH ikasketak egiteko 13 bekako programaren bidez, eta Udalaren 15.430 euroko ekarpena izanda; era berean, Muskizko 69 langabe lan munduan txertatzeko zerbitzua Gehi-lan 2000 S.L. enpresari esleitu zaio.



Herritarrek 2018ko udal-aurrekontuetan parte hartzeko prozesua itxi da

Muskizko Udalak 2018. urterako aurrekontua onetsi du. Parte-hartzean oinarritutako udalerriko bigarren aurrekontuak izan dira hauek. Horien bidez, 12.813.400 euroko azken diru-saila izanda, udal-arduradunek udalerriko herritarrek aurkeztutako eskaeren %60 artatu dituzte. Hasiara batean herritarrek helarazitako inbertsioei aurre egiteko finkatutako diru-saila handitu egin da.

Herritarren parte-hartzea eta onespena aintzat hartuta, bideratutako zenbatekoa handitu behar izan da, aurreko urteko kopuruarekin alderatuta, herritarren ekarpenetatik eratorritako inbertsioei aurre egin ahal izateko: 175.000 eurokoa izatetik 204.000 eurokora igo da. Muskiztarrek 37 proposamen aurkeztu dituzte guztira, besteak beste, hainbat auzotan eta parketan argiztapena hobetzeko, irisgarritasuna eta kaleko altzariak hobetzeko, herritarren segurtasuna bermatzeko eta trafikoa lasaitzeko.

Muskizko Udalak baiezkua eman die herritarrek aurkeztutako 18 eskaerari. Beste alde batetik, lau proposamen aztertzeko epean daude oraindik, 2018. urteko inbertsioen planean sartzeko, edo, bestela, udalaz gairik beste erakunde batzuekin aztertzeko. Azkenik, udal-sailetako ordezkariak 15 proposamen baizik ez dituzte baztertu; gehienetan, hala jokatu dute ohartu direlako toki-erakunde be-
tearazleak eskumenik ez duen arloetako esku-hartzeak zirela. Parte-hartzean oinarritutako bigarren aurrekontu hauek abian jarrita, Muskizko Udalak herriko

biztanleen egiazko beharrak ezagutu nahi izan ditu, auzoetako premien berri duten herritarren eskaeretan oinarritutako konponbideak eskaintzeko, muskiztarren protagonismo aktiboa bultzatzeko, bizitza publikoaren ikusle huts senti ez daitezen, eta kudeaketa publikoan udalbatza eraginkorra eta gardena finkatzeko.

Inbertsio-plana

Gainera, 2018ko aurrekontuaren barruan, hainbat inbertsio jaso dira, aurreikuspenen arabera soberakinekin ordaintzeko, besteak beste, ibai ertzeko pasealekua, igerilekuak, teniseko eta padeleko pistak, Rigadako Kultur Etxea, ikastolako kantxaren estalkia, El Cruceron bera bakarrik garbitzen den komun bat, pilotalekuko aldagelak eta Malekoiko futbol-zelaian egin beharreko zenbait hobekuntza, Muskiz udalerrri gisa hazteko lagungarriak izango diren beste ekintza batzuen artean.



Izaera sozialeko aurrekontuak

Muskizen moduko udalerrri bat mantentzeak eta hobetzeak dakartzan gastuei aurre egin ahal izateko, ezinbestekoa da diru-sarrerak biltzea; horietako gehienak zergetatik eta udalerriko herritarren eta enpresen tasetatik iristen dira. Aurten eskuratutako kopurua 12.813.400 eurokoa da guztira. Zenbateko horretatik, Udalak 7.866.084 euro (aurrekontuaren %61) bideratu ditu ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuetarako; horien artean daude, besteak beste, Egunko Zentroa, Gizarte Zerbitzuak eta Kiroldegia.

Muskizko Udala osatzen duten sail guztien arteko banaketan, Udalak 2018rako onetsita duen 12.813.400 euroko aurrekontutik, Hirigintza Sailera bideratutako 3.857.311 euroko kopurua nabarmentzen da, udalerrian egin beharreko hobekuntza guztiei aurre egiteko dena. Zuzkidurari dagokionez, Gizarte Ekintza Sailerako gorde da aurrekontuko bigarren zenbatekorik garrantzitsuena: 2.862.773 euro. Beste alde batetik, Kultura, Kirola eta Gazteria saili dagozkien jardueretarako, 2.642.920 euroko zenbatekoa bideratu da; Euskara eta Hezkuntzara zuzendutako 662.720 euroekin osatuko dira horiek. Administrazioari berari dagokion kudeaketarako, 2.014.975 euroko zenbatekoa bideratuko da, eta aurrekontuko gainerako 772.700 euroak Herritarren Segurtasunerako erabiliko dira.



Uhinbiko berria Mello bideko igoeran

Muskizko Udalak uhinbiko berria jarri du Mellora igotzeko errepi-dean, guztira 22.002,64 euroko aurrekontuarekin. 90 metroko hesiari esker, autoen joan-etorria segurua goa izango da Mellora joateko erre-pidean. Gainera, "arnas eremu" txiki bat ere eraiki da bertan.



Baranda aldaketa El Cruceron

Udalak baranda berria muntatu eta jarri du El Crucero inguruan, orain arte zegoena ordezkaturik. Baranda aldatuta, sarbidea hobetu da, mugikortasun urriko pertsonak eremu horretara iristeko, eta gune horretan dagoen bihurgunean erortzeko arriskua ere saihestu da, auzokoei eskatzen zuten moduan.



Borjako bidea, birgaituta

Muskizko Udalak Borjako bidea birgaitu du, errepi-dea asfaltatuta. Bide-tarte hori hondatuta zegoen, batetik, aspalditik berriro gabe zegoelako, eta, bestetik, bide berdeko obrak egiteko erabilitako makineria astunaren joan-etorriek narriatuta utzi zutelako. Abanto-Zierbenako mugaraino asfaltatuko da. Kostu osoa 17.424 eurokoa izan da guztira.

Muskiz, bizi-ohitura osasungarriak sustatzearen alde

Eskola-ikasle, familia eta, oro har, erkidego osoari bideratuta dagoen Muskizko Udalaren mendetasunen prebentzio-rako eta osasuna sustatzeko programak 12 urte bete ditu, eta emaitza onak izan ditu, 2005. urtean ekimena hasi zenetik. Ondorio onuragarriak ikusita, Udalak erabaki du programari jarraipena ematea eta eustea, udalerriko herritar guztiei zerbitzua eskaintzeko.

Aurreko edizioetan bezalaxe, udal-arduradunek eutsi egin nahi diete prebentzioko jardueri, eskola, familia eta erkidegoa bezalako esparruak barnean hartuta. Beraz, programak udalerriko ikastetxe guztietan garatutako jarduerak biltzen ditu, batik bat 18 urtetik beherako umeei eta nerabeei bideratuta, biztanleen sektore horretan drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko eta kontsumoa gutxitzeko ahalginean. Hori dela eta, mendetasunen prebentzio-rako eta osasuna sustatzeko planeko jardueren zati garrantzitsu bat ikastetxeetan egingo dira. Jarduera horien helburua da bizi-ohitura osasungarriak barnerratztea, era didaktiko eta hezitzailean.



Bera bakarrik garbitzen den komun berria El Crucero parkean

Obra zibila onetsi ondoren, Muskizko Udalak adjudikazioa eman du, El Crucero parkean bera bakarrik garbitzen den komun berria jartzeko. Ekintza udalerriko herritarren lehenetsuen artean jasota zegoen, eta inbertsio-planean sartu da, guztira 60.000 euro inguruko kostuarekin. Gaur egun, El Cruceroko parkean dauden komunak itxita daude, eta haietan lanen bat egiteak arazoak sortuko lituzke, kokalekua dela-eta. Eremu horretan ura iragazten zen, lur azpitik eta udalerraren goi aldetik heldutako uraren eraginez.



Uda honetan irekiko da Muskizetik El Pobal burdinolarainoko ibai-pasealekua

Ezarririk epeak betez, udako hila-beteetan irekiko da Muskizko ibai-pasealekua, herritarren eta bisitarien gozamenarako. Muskizetik El Pobal burdinolarainoko ibai-pasealekuak 4 km gehiago izango ditu, Kobaron, Pobeña, hondartza eta Muskiz artean eraikita eta erabiltzen ari den 8 km inguruko bidezidorrari gehitzeko, eta, horrela, aisialdirako eta jolaserako gunerak berria eratuko du.

Azken hilabeteetan, hainbat lan egin dira ibai ertzeko bidezidorra prestatzeko. Purísimo zubitik doan landa-lurreko zatian bi zoladura-mota jarri dira: hareazko ale-egiturakoa eta plastikozko saretaz osutako ale-egiturakoa. URAk agindu du biak jartzeko, ingurumena babeste aldera.

Pasealekua egiteko lanetan, puntu berezi batzuk izan dira, besteak beste, Barbadun ibaiaren gaineko pasabidea eta beste ibai-pasabide batzuk. Guztira, zurezko 5 pasabide jarri behar izan dira, altzairu herdoilgaitzez egindako baranda batez atonduta (bat 20 metrokoa, eta besteak 10 eta 10,5 metrokoak). Bestetik, galeria bat zabaltzen ari da tunelak egiteko makina batekin, ertz batetik bestera iritsi ahal izateko, eta, horrela, ibai ertzeko pasealekuari jarraipena emateko.

Ekintza horiei esker, herritarrek eta bisitariak ondo pasatu ahal izango dute uda honetan, ezaugarri onenekin naturalingurunean egindako ibai-pasealekuan.



Adinekoentzako zerbitzuek balorazio ona jaso dute

Muskizko Eguneko Zentroa, Familiak Atsedeen Hartzeko Zentroa eta Adinekoentzako Etxea Muskizko herritar askori zerbitzua eskaintzen dieten hiru udal-baliabide dira, eta erabiltzaileek eta haien senideek oso balorazio ona egin dute haietaz. Zerbitzu hauen xede nagusia da erabiltzaileen autonomia sustatzea, haien ahalmen kognitiboak eta funtzionalak bultzatuz eta birgaituz. 2017an Udalaren Adinekoentzako Zentroan eskainitako hiru zerbitzuen kostua 625.580,80 eurokoa izan da.

Muskizko Eguneko Zentroak 36 pertsona artatu ditu 2017an, eta urteko batez beste okupazioa %95koa izan da. Artatutako pertsona gehienak emakumeak izan dira berriro, hain zuzen, %72. Portzentaje horrek %8 egin du behera azken bost urteetan, eta batez beste adina 86 urtekoa da, biztanleriaren zahartzeko prozesuarekin bat etorritik. Hogeita bost urteko historia duen zentro honek estimulazio multisentsorialerako Snoezelen aretoa du adinekoentzat, bai eta fisioterapiako, psikologiako, animazio soziokulturaleko (tailerrak, txangoak, jaiak eta bestelako jarduerak egiteko), arreta pertsonal eta sozialeko eta garraio zerbitzuak ere. Familiak Atsedeen Hartzeko Zentroak 2010ean ireki zituen ateak, eta larunbat, igande eta jaiegunetan egoten da zabalik. Iaz, 32 lagun artatu zituen, eta batez beste okupazioa %83koa izan zen. Horrez gain, nabarmendu behar da artatutako pertsonen kopuruak gora egin zuela.

Bestetik, Adinekoentzako Etxean, animazio soziokulturaleko teknikaria arduratzen da urte osoan aisiari, astialdiari eta garapen komunitarioari lotuta dauden jarduerak guztiak programatzeaz, dinamizatzeaz, gainbegiratzeaz eta antolatzeaz.

Ibilgailu berria mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko

Mugikortasun urrikoak diren edo etxean oztopo arkitektonikoak dituzten muskiztarrek lekuz aldatzeko garraio egokitu zerbitzuak azken belaunaldiko ibilgailu berria du. Udalean zerbitzua eskaintzen duen CAE (Laguntza Espezializatuko Zentroa) enpresak eskuratu dituen ibilgailu berri hauen lehenengo unitatea orain dela gutxi jarri da abian Muskizen. Zama handiagoa igotzeko ahalmena duen plataforma bat du, bai eta eusteko eta atxikitzeko sistema modernoak ere, langilei lana errazteko eta erabiltzaileen segurtasuna

hobetzeko. Bestalde, hobekuntza berriak izateaz gain, babes termikoa eta klimatizazioa ditu.





Elkarrizketa



Muskizko Eguneko Zentroa, funtsezko zerbitzua adinekoentzat

Muskizek ondo frogatu du konpromisoa duela adinekoekin, eta lanean aritu da, behar bezala balioesteko eta udalerrian egiten diren jardueretan parte har dezaten lortzeko. Lan horren zutabe nagusietako bat Muskizko Eguneko Zentroa eta bertako langileak dira. Hurbiltasuna, zerbitzuaren kalitatea, dinamismoa eta zahartze aktiboa sustatzea dira herriko adinekoen zerbitzura 25 urtetik gora eman dituen zentro honen ezaugarri nagusiak. Zentroko langileetako bat da Nahikari Pérez, eta hark kontatu digu zentroak eta bertan egiten den lanak duten garrantzia.

G/ Zein da zentroaren bereizgarria?

E/ Beharbada, gure zentroaren bereizgarri nagusia hurbiltasuna da, erabiltzaileei eta haien senideei hori transmititzen saiatzen baikara. Zentro irekia eta dinamikoa da, eta beti egoten gara prest gure zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, berrikuntzaren, arreta zuzenaren eta era askotako jardueren alde eginez.

G/ Zenbat erabiltzaile dago orain Eguneko Zentroan? Nolako da eguneroko martxa?

E/ Une honetan 30 erabiltzaile daude, eta zentroak dituen plaza guztiak betetzen dituzte. Gure zentroan, eguneroko martxa oso dinamikoa da. Erabiltzaileak beren etxeetatik jaso –garraio arruntean edo egokitutako garraioan–, zentrora ekarri, eta gosalduta egiten

dute, eta, gero, egun horretarako programatuta dauden jardueretan sartzen dira: fisioterapia, animazioa, psikologiako zerbitzua, bainu geriatrikoak, Snoezelen metodoa eta askoz jarduera gehiago. Gero, bazkaldu, sies-ta egin, eta berriz sartzen dira jardueretan. Horren ondoren, merienda hartu, eta beren etxetara itzultzen dira zentroaren garraioan.

G/ Zenbat denbora darama Urgatzik zerbitzuaren kargura? Nola baloratzen dituzue urte horiek?

E/ Urgatzi enpresak 2000. urtetik du zentroa kudeatzeko ardura, eta urterik urte zabaldu du zerbitzuen zorroa. Urte hauek oso onak izan dira udalerrientzat, gure adinekoek zuten eta duten benetako behar bati eman baitiogu erantzuna. Oinarrizko beharrez gain, gizarteratzeko eta aisialdiko beharrak, behar ludikoak daude... oso garrantzitsuak guztiak.

G/ Zein zerbitzu berri sartu duzue azken urteetan?

E/ Azken urteetan zerbitzu eta jarduera berriak sartu ditugu, esate baterako, erabilitazio eta birgaitze funtzionaleko fisioterapia-zerbitzua, Snoezelen metodoa, memoria-tailerak, Rehacog programa... Beti ari gara geure burua birziklatzen, pres-takuntza etengabe, erabiltzaileen egoera berrietara egokitu, eta gure zerbitzuen kalitatea hobetu ahal izateko.

“Urte onak izan dira, erantzuna eman baitzaio adinekoek zuten beharrari”

G/ Familiak balorazio ona egin dute Eguneko Zentroaren eta Familiak Atsedan Hartzeko Zentroaren zerbitzuaz. Azken zentro hori aitzindaria izan zen Muskizen, eta erabiltzaileek oso harrera ona egin diote. Zer jarduera-mota egiten dute?

E/ Bai, Familiak Atsedan Hartzeko Zentroa 2010. urtetik dago abian, eta oso harrera ona izan du urte hauetan. Egia esan, edukieraren %100ean dago, eta itxarotzerrenda ere bada. Zentroan, animazioko teknikari bat eta bi laguntzaile daude. Eguneko Zentroan bezala, erabiltzaileak beren etxeetatik jaso, gosalduta, eta programatutako jardueretan sartzen dira, kasu honetan, animazioko zerbitzuak antolatutako ekintzak, besteak beste, eskulanak, jolasak, txangoak... Bazkaldu, eta arratsaldean beren etxetara itzultzen dira zentroaren garraioan. Familiak oso balorazio ona egiten dute, atsedalditxo bat uzten baitie aste-buruan adinekoen ardura duten zaintzaileei.

G/ Beraz, nolabait esan daiteke Muskizko udalerririk konpromisoa duela gure adinekoen ongizatea lortzeko...

E/ Gero eta gehiago. Zahartze aktiboa sustatzen ari gara, gero eta bizitza luzeagoa duen gizarte hau inplikaraziz, eta adinekoek udalerrian egiten diren jarduera guztietan parte har dezaten bultzatuz.

Muskizek lehen “Eguzki Fest” azoka egingo du maiatzean, Enkarterekin lankidetzan

Muskizko Udalak “Eguzki Fest” azoka egingo du maiatzean, Enkarterekin lankidetzan; jai berria udalerrian. Herritarrek eta bisitariek aukera ederra izango dute merkatuaren kontzeptu berri batez gozatzeko, gastronomia, diseinu, moda, musika, artisautzako garagardo, lore eta landareen eskaintza zabal batez. Azoka hainbat txokotatik banatuko da: lurrinen txokoa loreak, haziak, xaboiak, intsentsuak...

egongo dira; zaporeen txokoa hemengo hainbat produktu izango ditugu, esate baterako, txokolata, kafea, garagardo eta gozokiak; musikaren txokoa kaleko kontzertuak egingo dira; eta diseinuaren txokoa, azkenik, moda, bitxiak eta osagarriak egongo dira. Bestalde, “Eguzki Fest” azokan atal berezi bat egongo da txikientzat, haurrentzako jarduerekin, tailerrek eta animazioarekin.

